

Euskalkien sailkapen berria

Gotzon Aurrekoetxea
Iñaki Gaminde
Jose Luis Ormaetxea Txipi
Xarles Videgain
(ed.)

eman la zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Euskalkien sailkapen berria / Gotzon Aurrekoetxea ...[et al.] (eds.). – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2019.]. – 181 p. : il., map. ; 24 cm.

Incluye bibliografía (p. 159-163) y anexos.

D.L.: BI-2312-2019. — ISBN: 978-84-1319-096-9.

1. Euskara (Lengua) – Dialectos. I. Aurrekoetxea, Gotzon, coeditor.

809.169-087

UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak lagundutako liburua.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-096-9

Lege-gordailua: BI-2.312-2019

AURKIBIDEA

1. Sarrera	
<i>G. Aurrekoetxea, I. Gaminde, J. L. Ormaetxea Txipi, X. Videgain . .</i>	9
2. Oinarri teorikoak	
<i>G. Aurrekoetxea, I. Gaminde, X. Videgain, J. L. Ormaetxea Txipi</i>	11
3. Metodologia	
<i>G. Aurrekoetxea, I. Gaminde, A. Romero</i>	19
4. Izen-morfologia	
<i>G. Aurrekoetxea, X. Videgain, L. Unamuno.</i>	33
5. Aditz-morfologia	
<i>G. Aurrekoetxea, X. Videgain, A. Ensunza</i>	51
6. Sintaxia	
<i>X.Videgain, G. Aurrekoetxea, A. Iglesias</i>	67
7. Fonologia	
<i>I. Gaminde, A. Etxebarria, X. Videgain</i>	83
8. Lexikoa	
<i>G. Aurrekoetxea, J. L. Ormaetxea, X.Videgain, J. Abasolo</i>	101
9. Euskalkien sailkapen berria	
<i>G. Aurrekoetxea, I. Gaminde, J. L. Ormaetxea, X. Videgain. . . .</i>	119
10. Epilogoak	155
11. Bibliografia	159
12. Eranskinak	165
13. Izen teknikoen glosarioa	179

1.

SARRERA

G. Aurrekoetxea

I. Gaminde

J. L. Ormaetxea *Txipi*

X. Videgain

Liburu honek aurretik egindako ikerketa askoren ondorioak biltzen ditu. Orain artean, eta azken urteotan bereziki, argitaratutako ikerketan lanetan oinarritutako dibulgazio-lana da. Beraz, jada argitaratua edo nonbait aurkeztua ez den gutxi aurkituko du irakurleak orrialde hauetan; baina, aldi berean, orain artean egileok argitaratu ditugun artikulua ulertzeko zail izan zaizkion urratsak edo teknikak hemen modu ulergarriago batean irakurri ahal izango ditu. Izan ere, liburu honen sorreran irakurle berezituaren ordeztu irakurle zabala izan da gogoan, euskarari buruzko ikasketa berezirik izan ez arren euskararen bariazioari buruzko kontuak gustuko dituen, euskalkien gaiak interesatuta dagoena, alegia. Irakurleak hemen aztertuko diren gaiak ikuspuntu sakonago batetik begiratu nahi baditu, erreferentzia bibliografikoetan agertzen diren artikuluetara jo dezake.

Euskalkien sailkapen berria behar delakoan gaude, ezen orain artean egin direnetarik asko urruntzen baitira hemen erabili den marko teoriko, metodologia eta sailkapen-prozedurak. Orain arteko sailkapenak (L. L. Bonaparte eta K. Zuazorenak, batik bat) ikuspuntu diakronikoan eta gramatika historikoaren irakaskuntzetan oinarritzen diren bitartean, esku artean duzun hau ikuspuntu sinkronikoan oinarritzen da. Horrez gain, erabilitako metodologia ere oso desberdina da: orain arteko sailkapenak hizkuntza-ezaugarrien aukeraketan oinarritu izan dira; aldiz, honetan ez da irizpiderik aukeratu, hizkuntza-alor bakoitzean erabilgarri izan diren ezaugarri guztiak erabili dira. Azkenik, sailkatzeko erabili diren prozeduretan ere desberdinak dira: haiek ez dute sailkatze-teknikarik erabili; hemengo honetan, ordea, zientzietan objektuak sailkatzeko erabiltzen diren prozedura eta teknikak erabili dira.

Irakurlea jada ohartuko zenez, hizkeren edo euskalkien sailkapena hizkuntza-alorka egin da lehenik (4-8 kapituluetan), eta ondoren ezaugarri guztiak kontuan hartuz. Horrela, irakurlearen begietan ezartzen

dugu hizkuntza-alor bakoitzean nola dauden euskal hizkerak eratuta eta zein harreman duten elkarren artean.

Liburua, sarrera honez gain zortzi kapituluz dago osatuta: oinarri teorikoak, metodologia, izen-morfologiaren sailkapena, aditz-morfologiaren sailkapena, sintaxiaren sailkapena, fonologiaren sailkapena, lexikoaren sailkapena, euskalkien sailkapena eta epilogoak. Hauez gain, liburuan zehar agertzen diren bibliografia-erreferentziak eta eranskinetan kapitulu desberdinetako informazioa biltzeko eta datu-baseak sortzeko erabili diren gaiak ere aurkituko ditu irakurleak.

Metodologiari buruzko kapitulan euskalkien sailkapenari buruzko ikerketetan zein motatako bidea erabili den azaltzen da. Hau da liburuaren kapitulurik teorikoena eta aldi berean funtsezkoena. Han azaltzen dira gai honi buruz orain artean argitaratu ditugun artikuluetan zehar erabili diren teknikak: nola eraiki diren datu-baseak, hauen ezaugarriak, datu-baseetako datuak nola igo diren *Diatech* programara, programa edo tresna honek zer egiten duen, nolako estatistikak erabili diren sailkapen hierarkikoak lortzeko, zertan oinarritu den euskalkien sailkapena, eta abar.

Ondoko kapituluetan hizkuntzaren alor desberdinetan eman diren urratsak eta analisisen emaitzak argitzen dira. Kapitulu guztietan metodologia berbera erabili da: hots, datu-base berria eraiki eta datuen lematizazioa egin da, lehenik. Ondoren, *Diatech* programara igo eta programa hori erabiliz hizkuntza-distantzien taula lortu da; jarraian, Getxo eta Eskiulako hizkeren similaritate-mapak lortu dira; similaritate-mapetan hizkera batetik abiatuz gainerakoetara dagoen hizkuntza-desberdintasuna neurtzen da eta desberdintasun hori mapetan agerrarazten da. Getxo eta Eskiulako hizkerak aukeratu dira maparen bi muturretan kokatuta daudelako eta oso ondo islatzen dutelako gainerako hizkerekin dituzten desberdintasunak. Eta, azkenik, euskalkien eta azpieuskalkien sailkapena egin da multzokatze hierarkikoa (*cluster analysis*) deitu teknika erabiliz.

Emaitzei dagokienez, hemen aurkezten den euskalkien sailkapena aurretik egindakoekin konparatuz oso bestelakoa da. Hiru euskalki bereizi dira (mendebaldekoa, erdialdekoa eta ekialdekoa) eta zazpi azpieuskalki: mendebaldekoak bi ditu, erdialdekoak ere beste bi, eta ekialdekoak hiru. Orain irakurleak du hitza.

2.

OINARRI TEORIKOAK

G. Aurrekoetxea

I. Gaminde

X. Videgain

J. L. Ormaetxea *Txipi*

2.1. Sarrera

Euskalkiak edo objektuak, zeinahi delarik, sailkatzea helburu duen zeregina hartzean uste dugu, gutxienez, bi osagai hartu behar direla kontuan: batetik, aztertzea arloan aurretik egin den lana, eta, bestetik, gaur egun horretan dihardutenen lana.

Euskal dialektologian euskalkien sailkapen bat baino gehiago egin izan da L. L. Bonapartek egindakoaz gero. Nagusiki hiru saio aipa litezke: lehena Bonaparte Printzeak (1863) egindakoa, bigarrena Resurrección María de Azkuek (1905), Bonaparterenean oinarrituz, egindako aldaketak biltzen dituen, eta hirugarrena Koldo Zuazok egindako proposamena (1998), gero sakondu duena (2003, 2008).

Bonapartek 8 euskalki, 25 azpieuskalki eta 50 hizkera edo barietate definitu zituen, inon idatzi ez zituen irizpideak eta ezaugarriak erabiliz. Euskalkien sailkapen horrek ikaragarritzko ospea eta eragina izan du euskal hizkuntzalaritzan eta euskal kulturguneetan. Bonapartek, alabaina, ez zuen sailkapen bakarra egin, lau baizik; azkena da ezagunena eta denboraren joanean iraun duena. Euskalkien artean hauek bereizi zituen: bizkaiera, gipuzkera, iparraldeko goi-nafarrera, hegoaldeko goi-nafarrera, lapurtera, mendebaldeko behe-nafarrera, ekialdeko behe-nafarrera eta zuberera. Azpieuskalkien artean, bizkaieran 3 bereizi zituen (mendebaldekoa, ekialdekoa eta Gipuzkoakoa), gipuzkeran beste 3 (Beterrikoa, Goierrikoa eta Nafarroakoa), iparraldeko goi-nafarreran 6 (Ultzama, Baztangoa, Bortzirietakoa, Arakilgoa, Araizkoa eta Gipuzkoakoa), hegoaldeko goi-nafarreran 3 (ekialdekoa, Iltzabekoa eta mendebaldekoa), lapurteran bi (berezkoa eta nahasia), mendebaldeko behe-nafarreran 4 (zaraitzuera, Baigorrikoa, Lapurdikoa eta aezkera), ekialdeko behe-nafarreran 2 (Amikuzekoa eta Aturrikoa) eta zubereran beste 2 (berezkoa eta erronkaria).

Azkue izan zen lehena Bonaparteren sailkapena aldatzen: euskalki batzuk aldatu eta beste batzuk proposatu zituen. Azkueren ustez, 7 euskalki zituen euskarak: bizkaiera, gipuzkera, goi-nafarrera, lapurtera, behe-nafarrera, zuberera eta erronkaria. Ikusten denez, Bonapartek bi euskalkitan banatu zuen goi-nafarreran Azkuek bakarra ikusi zuen; berdintsu gertatzen da behe-nafarrerarekin. Zuberera, ordea, banandu eta bi euskalki ikusi zituen: zuberera eta erronkaria.

Zuazok behin baino gehiagotan erabili du gai hau. Lehenengoan (1998) 6 euskalki definitu zituen; hots, mendebalekoa, erdialdekoa, nafarrera, ekialdeko nafarrera, nafar-lapurtera eta zuberera. Bigarren argitalpen batean (2003) euskalki berak bereizten ditu, baina banaketa desberdina eginez. Adibide bat ematearren, lehenengoan Debarro guztia («Bizkaia, Deba arroak eta Arabako eremu euskaldunak osatua», 228. or.) mendebaleko euskalkian sartu zuen, baina bigarrenean *tarteko hizkeratzat* hartu zituen Mutriku, Mendaro eta Elgoibarko hizkerak. Antzera jokatu zuen Basaburua, Baztan eta beste eremu batzuetan ere. Hirugarren argitalpen batean (2008), azpieuskalkiak eta haien arteko tarteko hizkerak ere zehaztu zituen. Lan hartan, 11 azpieuskalki bereizi zituen; hots, mendebalekoan bi (sartalde eta sortalde), erdialdekoan hiru (sartalde, erdigunea eta sortalde), nafarrean lau (hego-sartalde, ipar-sartalde, erdigunea eta sortalde), nafar-lapurterra delakoan bi (sartalde eta sortalde), eta zuberotarra eta ekialdeko nafarra azpieuskalkirik gabe utzi zituen.

Bonapartek eta Azkuek ez dute adierazten ez zer datu erabili zituzten, ez zer herritan jaso zituzten, ez eta zer metodologia erabili zuten euskalkiak eta azpieuskalkiak finkatzeko. Zuazok ere ez du zehazten nola jaso diren erabili dituen 108 ezaugarriak, ez eta zer metodologia erabili duen eremuak zer euskalki eta azpieuskalkitakoak ziren erabakitzeko.

2.2. Sailkapenak zientzietan eta hizkuntzalaritzan

Esku artean duzun liburu hau egitea erabaki genuenean, eta helburua euskararen eremuko hizkerak sailkatzea zenez, giza zientzietan aztergaiak sailkatzeko erabiltzen diren metodoetara jo genuen. Zientziaren egitekoen artean espezieak sailkatzea ere badago. Horretarako, baliabide eta teknika desberdinak erabiltzen ditu. Taxonomia arduratzen da aztertzen dituen gizabanako edo objektuak bereizi eta haien arteko harremanen araberako egitura bilatu eta egitura horretan objektuak kokatzen, antzekotasunaren, berdintasunaren edo hurbiltasunaren arabera.

Bide horretan, taxonomiak «metodo zientifikoa» deitu izan dena erabiltzen du. Metodo hau jakintza berriak eskuratzeko erabiltzen diren

prozedura multzoa da. Prozedura honetan sartzen dira behaketa sistematikoa, neurketa, esperimentazioa, formulazioa eta analisisa. Hala ere, ezaguna da ez dela zientzia guztietan prozedura multzo hau bere osotasunean erabili behar izaten. Horrez gain, ikerketan zehar burutu den jarduera zientifikoki erabili dela ziurtatzeko, bi prozedura erabiltzen dira: neurketa eta arrazoiketa. Batetik, aztertzen diren objektu edo norbanakoen desberdintasunak, eta berdintasun edo antzekotasunak zenbatu eta neurtu behar dira. Eta neurtzeko komunitate zientifikoak onartutako izari edo unitatea erabili behar da. Neurketak berdintasun-desberdintasunak kuantifikatu egiten ditu eta, ondorioz, berdintasun-desberdintasun horiek eskala batean kokatzen ditu. Bestetik, arrazoiketa erabili behar da, desberdintasunak zer irizpidetan oinarritzen diren zehaztuz, irizpide objektiboak erabili direla ziurtatzeko.

Prozedura egokiak erabili direla ziurtatzeko metodo zientifikoak bi oinarri nagusi ditu: errepikatze gaitasuna eta ezeztagarritasuna. Lehenak, esperimentu jakin bat, sailkapen bat edo analisi bat egiten denean beste edonork esperimentu edo analisi bera berregiteko gaitasuna ziurtatzen du; hots, sailkapen bat beste edonork datu berekin eta teknika berak zein beste batzuk erabiliz birsortzeko aukera izan behar duela esan nahi du oinarri honek. Bigarrenak, ezeztagarritasunaren oinarriak, edozein proposamen zientifiko faltsutzat jo edo arbuiatua izan daitekeela defenditzen du. Noiz gerta liteke hori? Bada, kontraanalisian edo kontrafrogetan emaitza berdina edo antzekoak lortzen ez direnean.

Hauek dira, beraz, nagusiki metodo zientifikoaren urratsak. Egia da, urrats bakoitzean jarduera eta modu desberdinak gerta litezkeela, eta batzuetan beharrezkoa izaten dela. Hots, metodoa diziplina bakoitzean aplikatzeko bidea ez dela denetan berdina izaten; ezta beharrik ere.

2.3. Euskalkien sailkapenak

Eta zergatik dator hau hizkeren sailkapenari buruzko liburu batean? Bada, euskalkien sailkapenean metodo zientifikoa erabiltzea aldarrikatzen dugulako. Euskal hizkerak sailkatzea baldin bada kontua, ekin diezaiogun sailkatzeko zientziak garatu dituen tresnak eta irizpideak erabiltzeari. Mekanismo horiek hizkuntzara eta euskarara aplikatuz lortuko da sailkapen zientifikoa edo zientifikoki onartua den sailkapena. Eta hori da lan honetan erabili den metodoa: behaketa aztertzen diren hizkeren ezaugarrietan, datuen neurketa eta analisisa. Hipotesirik ere ez da egin, zuzen-zuzenean behaketan lortutako datuen egitura geolinguistikoiari ekin zaio, eta hori aztertzeko, froga-bideak ezarri dira indarrean, beharrezko teknika sailkatzaile-estatistikoak erabiliz. Nazioartean hizkerak sailkatzeko hainbat teknika erabiltzen dira dialektometria (DM, aurreantzean) izeneko diziplinaren barruan. DM da hizkerak, dialektoak sail-

katzeko eraiki diren prozedurak biltzen dituen adarra. Hitza bera sortu zenetik (J. Séguy 1973) gaur egunera arte ikaragarritzko ekoizpen eta garapena izan du diziplina honek (ikus, besteak beste, alor honetan nazioartean oso ezagun bihurtu diren H. Goebel eta J. Nerbonne ikertzaileen lanak).

Metodo berriak sortzen direnean, aurrekoak kolapsatu diren seinale izaten dira. Kasu honetan ere esan liteke dialektoak banatzeko isoglosa eta ezaugarri gutxi batzuetan oinarritzea agortuta dagoen metodologია dela, agerian gelditu delako baduela ezintasun bat eremuak delimitatzeko. Hori erakutsi du, besteak beste, Kessler-ek (1995), adieraziz isoglosek oso kasu bakanetan bat egiten dutela, edo oso gutxitan banatzen dituztela hizkuntza-eremuak garbiki, edota dialektoen arteko *continuum*a ez dutela azaltzen. Inoue-k (1996a) isoglosen metodoan oinarritutako ikerketek ezaugarri gutxiegi erabili izana deitoratzen du. Beste batzuek ezaugarriak aukeratzean dialektologoaren subjektibotasuna aipatzen dute, edota dialektologo batek lortutako emaitza ezin berreraiki izana beste metodo batzuk erabiliz (ikus, halaber, Maguire eta McMahon 2011).

Hori dela eta, gaur egun datu kopuru handietan oinarritutako sailkapena egiteko lanabesak eskura izanik, ezaugarriak aukeratu ordez datu kopuru handiak erabiltzen dira, eta subjektibotasuna baztertuz objektibotasuna bilatzen da. Prozedura hauetan oinarrituz, bestelako sailkapenak egin dira azken urteotan. Liburu honetan euskararen eremu osoan egindakoak biltzen dira, nahiz eremu txikiagoetan edo hizkuntza atal batean oinarrituz ere egin diren, hala nola Iparraldean bilduz eta Bourciez bilduma erabiliz (Aurrekoetxea & Videgain 2017), Nafarroan (Aurrekoetxea 1992, 2005), azentuaren sailkapena erabiliz (Aurrekoetxea, Gaminde, Iglesias, Gandarias 2013; Aurrekoetxea, Gaminde, Gandarias, Iglesias 2015), intonazioa erabiliz (Aurrekoetxea, Gaminde, Gandarias, Iglesias 2014b; Iglesias, Aurrekoetxea 2017), eta abar.

2.4. Sailkapen berri baten beharra

Liburu honen elaborazioan parte hartu dugunok azken urteotan trebatu gara nazioartean erabiltzen diren tekniketan; ez hori bakarrik, teknika kuantifikatzaileak erabiltzeko (*Diatech* deitzen den) tresna ere eraiki dugu. Hans Goebelen gidaritzapean sortutako VDM programarekin lehenik, eta *Diatech*ekin geroago, euskalkien sailkapen berria egiteko berme nahikoa eskaintzen dugula iruditzen zaigu.

Euskal dialektologia nazioarteko mailan jartzeko, behar-beharrezkoa da sailkapen berria egitea. Orain arte erabili den metodologia eta prozedurak alde batera utzi, eta nazioartean erabiltzen diren prozedura es-

tandarrak baliatu ditugu; hots, dialektometria izeneko metodologia eta prozedurak.

Aurreko prozeduretatik aldentzen diren prozedurak erabiliko dira hemen:

- a) Datu-kopuru handiak. Batetik, orain artean datu kopuru muga-tuak erabili izan dira: Bonapartek ehun baino gutxiago ikertzaile guztien arabera (erabili zituen ezaugarri kopuru zehatza lortze-rik ez da izan); Zuazok, 108 ezaugarri. Aldiz, sailkapen hau datu kopuru handietan oinarrituko da. Hauek datu-baseetan eratuko dira. Gure kasuan esku artean izan diren datu erabilgarri guztiak hartu dira. Izaera honek ikaragarri handitu du erabili den datu ko-purua; guztira 649 ezaugarri erabili dira liburu honetako emaitzak lortzeko. Horrek fidagarritasuna ematen die emaitzei.
- b) Datuen aukeraketarik ez. Berariaz, baztetu egin da datuen auke-raketa. Datu kopuru handiak erabiltzeak ezaugarriak aukeratzea baztertzen du. Ikertzaileek ezaugarriak ez aukeratzea garrantzi-tua da datuen aukeraketan subjektibotasuna baztertzeko, horrela bakarrik bermatzen baita datuen objektibotasuna. Erabiltzen diren datuak objektiboak izatea, eta ez ikertzaileak aukeratuak, ezinbes-teko ezaugarria da ikerketaren fidagarritasunerako.
- c) Prozedura kuantitatibo-estatistikoak. Behin datuak behar bezala jasota, prozedura kuantitatibo-estatistikoak ezarriko zaizkie. Pro-zedura hauetan hizkerak sailkatzeko estandarra den multzoka-tze-analisia erabili da (nazioartean *cluster* analisia deitua). Tek-nika honen bidez, hizkerak hizkuntza-antzekotasunaren arabera multzokatuz joaten dira, harik eta denak multzo bakarrean bildu arte. Multzokatze hau hierarkia baten barruan kokatzen da, eta izaera honek ematen dio indarra multzokatze-prozesuari. Hierar-kia baten kokatzeak multzo berriak egitean aurrekoek dituzten ezaugarriak bereganatzen dituela.
- d) Ikuspuntu sinkronikoa. Bada beste ezaugarri bat esku artean du-zun sailkapena orain arteko euskalkien sailkapenetatik bereizten duena: honen ikuspuntu sinkronikoa. Hau da, hizkuntza sistema bezala hartuz, ezaugarri sistemikoez osatutako datu-baseak eraiki dira, eta ez diakronian edo hizkuntzaren historian zehar ezauga-rri batek (lege fonologiko batek, demagun) izan duen garrantzia kontuan hartuz. Ikuspuntu diakronikoa kontuan hartuz ezauga-rriak aukeratzeak badu zentzua, ezaugarri batzuek beste batzuek baino ibilbide luzeagoa, eragin handiagoa, eta abar, izan ditzake-telako eta, ondorioz, garrantzitsuagoak izan daitezkeelako. Baina ikerketa sinkronian kokatuz gero eta hizkerak sistema bezala kon-tsideratuz, ezaugarriak sistemikoak diren ber maila eta garrantzi berekotzat hartu behar dira, ezinbestean, ikerketa hau gidatu du-gunon ustez.

Jatorrizko euskararen lurralde osoa hartuz, lehenik azterketa hizkuntza-alorka egin da, eta ondoren alor guztietako ezaugarriak bilduz eta hizkuntza bere osotasunean hartuz eraiki da euskalkien mapa berria; alor guztietarako Euskaltzaindiaren EHHA egitasmoko datu argitaratuak erabili dira. Alorkako lehen sailkapena egiteko lehen datu-basea izen-morfologiari buruzkoa izan da (datu-base honekin egindako lehen ikerketak Aurrekoetxea 2016a eta Videgain & Aurrekoetxea 2016 dira), ondoren lexikoari buruzkoa egin da (egindako ikerketak Aurrekoetxea, Ormaetxea, Videgain 2018 eta 2019 dira), gero sintaxiari buruzkoa (Aurrekoetxea 2019a). Horiei aditzaren (Unamuno, Ensunza, Aurrekoetxea 2019) eta fonologiaren inguruko ikerketak erantsi zaizkie, hizkuntza-alor guztiak osatzeko. Ondoren, hizkuntza-alor bakoitzeko datu-base guztiak datu-base bakar batean bildu dira, eta hizkuntza ezaugarri guztien datu-basea eraiki da; datu-base oso hori da hemen erakusten den euskalkien sailkapena egiteko erabili dena (ikus sakonago Aurrekoetxea, Gaminde, Ormaetxea, Videgain 2019).

2.5. Dialektoen sailkapenaz hausnarketa

Orrialde hauetan euskalkiez hitz egiten ari gara, baina badira oraindik erantzunik gabeko galderak, kezak eta arazoak gai honen inguruan. Horietako bat, adibidez, honako hau: aukeratzen diren ezaugarrien balioa edo pisua zein den eta ea ezaugarri guztiek pisu bera duten ala ez. Ikuspegi diakronikoan edo hizkuntzaren historian lan egiten dutenek uste dute ezaugarri batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak direla, eta hizkeren banaketan pisu handiagoa izan beharko luketela; horrela mintzatu dira, besteak beste, Mitxelena (1988), Camino (2004) eta Videgain (1987); hala ere, hori defendatu dutenek ez dute oraindik zehaztu zenbatekoa izan behar duen pisu-desberdintasun horrek. Ikuspegi sinkronikoarekin lan egiten dutenek, aldiz, hizkuntzaren ezaugarri sistemikoei ematen diete garrantzia (Weinreich 1954, Dalbera 1984, adibidez), eta, aldi berean, sistemikoak diren ezaugarriak maila berean ezarri behar direla defendatzen dute, eta, ondorioz, hizkeren banaketan pisu bera izan beharko luketela (Dalbera 1984):

«La mesure de cette distance [distance synchronique] suppose, à son tour, une base de comparaison stable. (...) Cette base de comparaison stable, à construire, peut se concevoir comme le réseau de relations maximal susceptible de sous-tendre les réseaux de relations constitutifs des systèmes singuliers dans l'espace considéré, c'est-à-dire ce que l'on pourrait appeler le "macrosystème"»

Diogunaren harira, ezin dira ezaugarri sistemikoak eta ez-sistemikoak nahasi hizkeren sailkapena egitean. Izan ere, 'hizkera' bat eremu txiki batean kokatzen den eta ezaugarri zehatzak dituen hizkuntza-sistema da. Bi hizkera konparatzean hizkera horien sistemak edo horien ezaugarri sistemikoak dira konparatzen direnak. Beste molde batean esanda, ez dira nahasi behar ezaugarri fonologikoak eta fonetikoak; lehenak sistemikoak dira; bigarrenak, berriz, ez.

Bigarren arazoa euskalkien izaera da. Honen harira, zer behar du eremu bateko hizkerak 'dialekto' izateko? Edo zein dira dialektoaren ezaugarriak? Galdera hauek erantzuteke daude oraindik, baina funtsezkoa da galdera horiei erantzuna izatea, ezen ez bada erantzunik, ez badago zehaztuta eremu batek zein hizkuntza-ezaugarri bete behar duen «dialekto» izateko, nekez zehaztu ahal izango ditugu haiek. Eta, ondorioz, ezin izango dugu zientifikoki euskalki edo dialektoez hitz egin, ez eta zehaztu ere zenbat euskalki dauden eremu batean. Horrekin batera, beste hau ere badago: nola identifikatu eremu dialektalak? Dialektologia tradizionalen dialektoen banaketan metodo intuitiboak erabili izan dira, eta ikertzaile bakoitzak bere banaketa egin du, eta euskalkien kopurua ere desberdina izan daiteke. Estatistika sailkatzaileak, aldiz, metodo intuitiboak albo batera utziz, hizkuntza-ezaugarri kopuru handiak erabiliz eta hizkeren arteko hizkuntza-ezaugarrien desberdintasunetan oinarrituz, sailkapena egiteko aukera ematen du, multzokatze hierarkiko deitutako analisia erabiliz, esate baterako.

Euskal dialektologian euskalkien mapa desberdinetan agertu den euskalki kopuru desberdina faktore bat baino gehiagoren ondorio izan liteke, eta horien artean, besteak beste, dialektoaren izaerari buruzko eztabaida dago. Eta eztabaida hau bide onera ekartzeko, dialekto kopurua erabakitzeke prozedura zientifikoak erabili beharra dago (Gaminde 2007, Aurrekoetxea 1995, 2005, 2009).

Liburu honetan agertzen den euskalkien sailkapena hizkuntza-ezaugarriak huts-hutsean hartuta egin da; hizkuntza-ezaugarriak hizkuntza-atalka lehenik, eta atal guztiak batean ezarriz ondoren. Eraitza hauek behar bezala interpretatzeko, Euskal Herriaren historia, geografia, harreman sozialak, bizitza ekonomikoa eta gainerako gizakien harremanak aztertu beharko lirateke. Jakina, hori guztia sailkapena interpretatu ahal izateko da, ez sailkapena justifikatzeko edo eraikitzeke. *A posteriori* egin beharreko lana da: argitzeko zergatik gertatzen diren hizkuntza-desberdintasunen muga nagusi horiek, zerk eragin duen horien sorrera, eta abar.

Azkenik, liburu hau talde-lana dela jakinarazi behar da, lan kolektiboa. Gaia garrantzitsua eta sakona da benetan. Gaiari behar bezala oratzeko eta garatzeko, ikertzaile-talde bat antolatu da. Gizatalde hau EUDIA ikerketa-taldearen partaideez osatuta dago. Taldean kide bako-

tzak zeregin eta ardura desberdina izan du. Liburuaren argitaratzaileak izan dira lanak zuzendu eta bideratu dituztenak, eta erabakietan ere ardura handiena izan dutenak. Horien gidaritzapean burutu dira lanak eta eraman ahal izan da egitasmoa bere bururaino. Taldean belaunaldi bitako ikertzaileak biltzen dira: helduenak jakintzaren alor honetan jada ibilbide luzea egindakoak eta ardura profesionalak utzi arren ikerketan buru-belarri jarraitzen dutenak dira; gainerakoak, gazteagoak izan arren (ibilbide luzeagoa batzuek, laburragoa besteek), jada aski trebatuak dira eta etorkizun aberatsa eskura dutenak.

2.6. Euskalkien izendapena

Euskal dialektologiaren historian zehar euskalkiak modu desberdinetan izan dira izendatuak: lehen sailkapenean L.L. Bonapartek emandako izenak euskaraz jarritz honela izendatu izan dira: bizkaiera, gipuzkera, iparraldeko goi-nafarrera, hegoaldeko goi-nafarrera, lapurtera, mendebaldeko behe-nafarrera, ekialdeko behe-nafarrera eta zuberera. Azkuek egindako aldaketen ondoren, erronkaria deitu izan zaio Erronkariko euskalkiari, iparraldeko eta hegoaldeko goi-nafarrera euskalki batean bildu ostean, goi-nafarrera deitu izan zaio, eta berdinean mendebaldeko eta ekialdeko behe-nafarreraren kasuan, behe-nafarrera deituz. Zuazok egindako sailkapeneko 6 euskalkiak honela izendatu ditu: mendebalekoa, erdialdekoa, nafarra, ekialdeko nafarra, nafar-lapurtera eta zuberotarra.

Sailkapen honetan bereizi diren euskalkiak honela izendatu dira: mendebaldekoa, erdialdekoa eta ekialdekoa. Azpieuskalkietan mendebaldeko euskalkian bi azpieuskalki bereizi dira. mendebaldekoa eta ekialdekoa. Erdialdeko euskalkian ere, beste bi azpieuskalki, Gipuzkoakoa eta Nafarroakoa. Eta ekialdeko euskalkian, hiru: itsasaldekoa, barnealdekoa eta Zuberoakoa.